# BESTELAKO XEDAPENAK

## TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

## 3652

*EBAZPENA, 2021eko ekainaren 14koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie kontsumitzaileen elkarteei, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordain ditzaten 2021eko ekitaldian.*

Kontsumobideko zuzendariaren 2020ko abenduaren 9ko Ebazpenaren bidez, kontsumitzaileen elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia argitaratu zen, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordain zitzaten 2021eko ekitaldian.

2020ko abenduaren 9ko Ebazpenaren 6. artikuluan ezarritako epean, bost erakundek aurkeztu zuten eskabidea, bertan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko.

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko eratutako Epaimahai Kalifikatzaileak 2021eko maiatzaren 12an egindako proposamena kontuan hartu da.

Aipatutako legeak eta oro har eta bereziki aplikatzekoak diren bestelako xedapenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Kontsumitzaileen antolakundeei 422.159,20 euroko dirulaguntzak ematea, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuetarako. Zenbateko hori honela banatuko da:

Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa – EKE

| | | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| 1. lerroa Kontsumitzaileentzako arreta | 59.032,80 € | 44.274,60 € | 14.758,20 € |
| 2. lerroa Laguntza juridikoa | 9.600,00 € | 7.200,00 € | 2.400,00 € |
| Guztira | 68.632,80 € | 51.474,60 € | 17.158,20 € |

Euskadiko Kontsumitzaileen Batasuna – EKB

| | | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| 1. lerroa Kontsumitzaileentzako arreta | 100.448,00 € | 75.336,00 € | 25.112,00 € |
| 2. lerroa Laguntza juridikoa | 49.552,00 € | 37.164,00 € | 12.388,00 € |
| Guztira | 150.000,00 € | 112.500,00 € | 37.500,00 € |

Euskal Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea – ACUV/EKA

| | | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| 1. lerroa Kontsumitzaileentzako arreta | 102.000,00 € | 76.500,00 € | 25.500,00 € |
| 2. lerroa Laguntza juridikoa | 92.000,00 € | 69.000,00 € | 23.000,00 € |
| Guztira | 194.000,00 € | 145.500,00 € | 48.500,00 € |

Bidasoako Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea – ACUBI

| | | 2021 | 2022 |
|---|---|---|---|
| 1. lerroa Kontsumitzaileentzako arreta | 9.251,40 € | 6.938,55 € | 2.312,85 € |
| 2. lerroa Laguntza juridikoa | 275,00 € | 206,25 € | 68,75 € |
| Guztira | 9.526,40 € | 7.144,80 € | 2.381,60 € |

Jarduneko Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Elkartea – FACUA Euskadi

| | |
|---|---|
| 1. lerroa Kontsumitzaileentzako arreta | 0,00 € |
| 2. lerroa Laguntza juridikoa | 0,00 € |
| Guztira | 0,00 € |

2.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari eta, haren aurka, gorako errekurtsoa jar dakioke Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean.

3.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 14a.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendaria,
MARÍA OLGA SANTAMARIA NAVARIDAS.